

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko maiatzaren 15a. IX. urtea. 2.594. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Unai Igartua eta Irati Hartsuaga arduradunak, parte hartuko duten eragileekin eta norbanakoekin. ITZEA URKIZU

## Ahora! Asteak tolosarrak euskarara erakarri nahi ditu

Laskorain ikastolak Ahora! Astea antolatu du herriko hamaika eragileekin elkarlanean; igandean hasiko da patinaje eta skate festarekin

Euskaraz ondo pasatzeko xedea nabarmenduz, Kilometroak 2013k, herritarrak euskararen inguruan dinamizatu nahi ditu **02-3**

### San Isidro Eguna ospatuko dute gaur Tolosaldeko hainbat herritan

Herri kirol probak, bazkariak eta afariak egingo dituzte, besteak beste, eta trikitilariak eta bertsolariak alaituko dute baserriarren omenez antolatzen diren ekitaldien giroa **06**

### Truke azoka egingo dute igande goizez, Alkizako plazan

Aiztondoko Denbora Bankuak antolatu du 'Ekarri behar ez duzuna eta eraman behar duzuna' azoka; Dirurik Gabeko elkarteak aurkeztuko dute, 12:30ean **04**

### Izaskungo jaiei ohiko zaldi lasterketarekin emango diete hasiera

Larunbatean eta igandean ospatuko dituzte Ibarrako Izaskun auzoko jaiek; igandean herri kirolak, bazkaria eta bertsolariak izango dira **07**

## Tolosako Paper Eskolak bi ziklorekin zabalduko ditu ateak datorren ikasturtean

Kimikagintza eta Kimika industrialak izango dira eskainiko dituen araututako bi zikloak; ate irekien jardunaldia egingo dute, gaur **07**



Eguzkitza, Iriarte eta Sagarzazu, atzo, Paper Eskolan. HITZA



Unai Igartua eta Irati Hartsuaga arduradunek, parte hartuko duten eragileen eta norbanakoen babesa izan zuten aurkezpen agerraldian. I. URKIZU

# Euskarak piztuko ditu tolosarrak, Ahora! Asteko egitarauarekin

Ahora! Astea antolatu du Laskorain ikastolak, «KMK 2013 girotu, eta Tolosa euskararen inguruan dinamizatze»

Igande honetan hasiko dute egitaraua, patinaje eta skate festarekin

## Itzea Urkizu

Datorren urriaren 6an Tolosan ospatuko den Kilometroak jairen helburuekin bat eginez, eta Kilometroak eguna bera girotze aldera, Ahora! Astea antolatu du Laskorain ikastolak, herriko ha maika eragilarekin elkarlanean. Tolosa eta tolosarrak euskararen

inguruan dinamizatu nahi dituzte batetik, Laskorain ikastolako antolatzaileek; horrekin batera, euskaraz ondo pasatzeko xedea ere nabarmendu dute.

Jomuga horiei eutsiz, eta euskaraz esparru guztietan bizi daitekeela aldarrikatuz, Tolosako haur, gazte nahiz helduak aktibatze bideei heldu diete, Ahora!

Asteak igande honetatik maiatzaren 25era bitarte eskainiko dituen jarduerak eta egitasmoen bidez.

Aste osoko egitarau oparoa osatu ahal izateko, herriko ha maika eta bat eragile eta norbanakorekin elkarlanean aritu dira arduradunak. Besteak beste, Tolosako Liburutegia, Kike Amonarri, Bonberenea Txaranga, Txapinfesta, Tolosa Kantari, Tolosako Zine Kluba, Irristaka patinaje taldea, Tolosako Skate Taldea, Harituz Bertsozaleen Elkargunea, Klean Txaranga, GKO Gallery, Tolosako Udal Txistulari Banda, Karlos Linazasoro, Tamer Birawi nahiz Tolosako merkataria eta ostalariak izango dira parte hartzaileetako zenbait.

Honen harira, Kilometroak

2013ko koordinatzaile Unai Igartuak eskerrak eman nahi izan dizkie guztiei, Ahora! Astea aurkezteko egindako agerraldian: «Oso gustura gaude osatutako egitarauarekin, eta eragile eta norbanako guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen».

## Zaletasun guztiak asetuz

Igandean bertan ekingo diote Ahora! Asteari, Patinaia egunarekin, eta haur, gazte eta helduei begirako jarduerak antolatu dituzte, Irristaka taldearen eskutik, goizean zehar; federatuentzako lasterketa ere izango da.

Arratsaldean, berriz, Tolosako Skate Taldeko kideek 8 urtetik gorako herritarrei skate ikastaroak eskainiko dizkiete, Usabalgo skate parkean. Kirol jarduerak

hauek guztiak egin ahal izateko, kaskoa behar-beharrezkoa izango dela azpimarratu dute antolatatzaileek.

Datorren astelehenean, berriz, Kike Amonarrirek hitzaldi berezia eskainiko du, Tolosak historian barrena umorearekin izan dituen loturak hizpide hartuta: «Bigai uztartuko ditut, Tolosa eta umorea. Aurrerapen gisa, esaterako, Tolosan euskaraz idatzi zen lehen dokumentuko lehen hitza 'adarrak' izan zela aurreratu dezaket; eta ez ziren zezenarenak», azaldu du txantxa artean tolosarrak. Finean, dokumentu eta agiriak baliatuz gidatuko du *Tolosa, euskararen irriburu* saioa, 19:30etik aurrera, kultur etxeako areto nagusian.

Musikarekin lehen zita, berriz,

## ↓ Iragarki laburrak

### SALGAI

**Etxebizitza bifamiliarra.** Orendainen salgai edo alokairuan etxebizitza bifamiliar berria, izkina batean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela-jangela, tximinia, bi terraza-lorategi eder, trastelekua, garaje bikoitza, eta abar. 145 m<sup>2</sup>. Ikuspegi irekia du, eta independen-

tea da. Baratzea du. Interesatuak deitu 943 65 42 72 edo 661 31 98 47 telefono zenbakira.

### LANBILA

**Etxeko lanetarako.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa dute-

nek, deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefonoetara.

### LAN ESKAINTZA

**Begiralea.** Aisialdi taldetako begiralea behar da, animazio lanak egiteko. Kontuan hartuko da antzerkiko kontzeptuak izan tea. Kurrikuluma bidali, *onkillklon@gmail.com* helbidera.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

asteartean etorriko da, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik. Pasa den urtean 40. urteurrena bete zuten bandak, eta hori aitzakiatzat hartuz, diskoa grabatu dute, Tolosako Musika Bandak, eta Eduardo Mokoroa musika eskolako bandak eta abesbatzak lagunduta. Asteartean, beraz, 20:30ean aurkeztuko dute lan berria, Topic zentroko aretoan.

2013ko Kilometroak jaiko antolatzaileen beste helburuetako bat, alkoholaren kontsumoaren inguruko prebentzioarena izan da. Bide horretan, Agipad eta Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuekin batera, *Familia eta nerabeek kontsumoak* saioa izango da, asteazkenean. Ahora! Asteko koordinatzaile Irati Hartsuagak azaldu duenez, «urte osoko jarduera gehiagoren artean lehena izango da hitzaldi hau».

Osteguna, hilak 23, asteburuko atari gisa prestatu dute, eta batek, zine foruma izango da; Palestinari buruzko *Bost bideo kamera apurtuta* filma izango da Leidorren, euskarazko azpitu-luekin, eta Tamer Birawik aurkezpena egingo du aurretik.

Zerkausion, berriz, hurrengo bi egunetan bezalaxe, sardina jatea

gingo dute: «Festa herriko bat antolatzeke asmoz, eta bizi dugun krisi garaia kontuan hartuta, patrika guztiarentzat erakargarri suerta daitekeen festa prestatu nahi izan dugu», azaldu dute. Modu honetara, sardina erreka eta sagardoa izango dira, eta babarruna zaporeko saltxitzak ere dastagai izango dira Zerkausion. Gainera, bideo lehiaketako parte hartzaile guztien lanak ere ikusgai izango dira.

Ahora! Asteko ekitaldirik nabarmenetako bat ostiralean izango da, *Bonberenea Txaranga eta Lagunak* kontzertuarekin. «Sakramentinoetako patioan egiteko ideia sortu zen, eta polita iruditu zitzaigun, eraikin berria ikasle

nahiz guraso ohiei erakusteko modua izan daitekeelako; xarma berezia izango du», azaldu du Igartuak.

Bide beretik, txarangako kide den Mikel Zelaiak, kontzertua banda formatuan eta sinfoniko formatuan eskainiko dutela azaldu du: «Dibertigarria izango da edozein adinetako ikusleentzat, eta Ahora! abestia zuzenean entzun ahal izango da». Aipatzeko dira, emanaldi berezi honetan taula gainean izango diren kolaboratzaileak: Aiora (Zea Mays), Aitor Gorosabel (Suta Gar), Francis (Doctor Deseo), Juantxo eta Jokin (Glaukoma), Natalia (Humus), eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Emanaldia ikusi ahal izateko sarrerak salgai daude jada, ondorengo guzietan: Tolosa, Ikastolako idazkaritzan, KMK13 dendan, Bonberenea, nahiz Denak, Orbela eta Meskal tabernetan; Villabonan, berriz, Amasa Okindegian.

Larunbatean, azkenik, Gazteok Txapinetan taldeak urtero antolatzen duen Txapin Festa Ahora! Astearekin uztartuko da. «Txapin festa elkarlanean antolatu dugun lehen aldian ez da izan, eta proposamena luzatu zigutenean berehala eman genien baiezkioa. Egia esan, egitaraua aurreko urteetakoan antzekoa izango da», azpimarratu du Maxen Izagirre antolatzaileak. Baz-

kari txartelak eskuratu nahi dituenak, Denak, Raku eta Meskal tabernetara, edo KMK 13 dendara eta ikastolara jo beharko du.

Aipatzeko da, baltsajaitsetan parte hartzeko kultur etxean izena eman beharko dela, eta parte hartzaileei Ahora! banderola emango dietela, baltsan jar dezaten.

Ahora Astea! larunbatean amaizuko denez, aste biribiltzeko datorren asteotarako Kilometroak 2013ko antolakuntzak aurreikusitako bi jardueren berri ere eman dute agerraldian.

#### Laster iritsiko dena

Ahora! Asteko egitasmoez gain, datozen asteotarako Kilometroak 2013ko antolakuntzak aurreikusitako bi jardueren berri ere eman dute agerraldian.

Batek, Kilometroak 2013ko bideo-kliparen aurkezpena maiatzaren 28an egingo dutela azaldu dute, eta era berean, ekainaren 2an, Bedaioko Artubi elkartearekin elkarlanean burutuko dute jardura: Tolosako tontorrik altuenera, Artubira, lekukoa eramango dute mendi ibilaldia burutuz.

o tolosa@hitza.info



Sakramentinoetako patioan eskainiko du emanaldia, Bonberenea Txaranga, kolaboratzaileekin. HITZA

## ↓ Ahora! Astea, egitaraua

### MAIATZAK 19, IGANDEA

#### PATINAJE FESTA

■ **10:00.** Adin guztietako patinatzaileen ibilaldia Tolosan, 3,5 kilometroko zirkuitua burutuz. Derrigorrezkoa izango da patinak eta kaskoa jantzita izatea, eta horrez gain, bestelako babesteko tresnak ere gomendatu dituzte.

■ **10:15.** Patinatzaileek irteera. Herriatik barrena 3,5 kilometroko itzulia egingo dute. Haur txikiek ere parte hartzeko aukera izango dute, zirkuitua murrizteko aukera izango baita.

■ **11:00.** Erlojuaren aurkako lasterketa, taldeka. 4 edo 5 parte hartzaileko taldeak egin beharko dira, eta kide bakoitzak 600 metroko zirkuitu bati lauzpabost buelta eman beharko dizkio.

■ **12:00.** Txandakako lasterketa, taldeka. Lauzpabost kide izango dira hemen ere, eta 600 metroko zirkuituari itzuli bat emango diote.

■ **13:00.** Erakustaldiak eta patinatzeke gune iriak jarriko dituzte: slalom, hockey, ... Nahi duenak proba egin ahal izango du.

■ Patinatzeke gune librea ere prestatuko dute, bere gisara patinatu nahi duenarentzat.

■ **17:00.** 8 urtetik gorako haurrentzako ikastaroa eskainiko dute Tolosako Skate Taldeko kideek, Usabalgo skate parkean. Skatea eta kaskoa derrigorrezkoak izango dira.

### MAIATZAREN 20TIK 25ERA

■ **17:00etatik 20:00etara.** Tolosako euskal idazleak erakusketan, haur liburutegien ganbaran. Aste osoan nabarmenduta eta ikusgai izango dira liburutegien, Tolosako idazle nahiz itzultzaileek lanak. Liburu horiek irakurtzen dituzten artean, gainera, zenbait galdera erantzuten dituztenek, Ahora! produktua eta liburuak irabazteko aukera izango dute zozketa batean.

■ Ahora! pintxo eskuragarri izango da, Tolosako tabernetan.

### MAIATZAK 20, ASTELEHENA

■ **19:30.** Hitzaldia, kultur etxeko areto nagusian, Kike Amonarriren eskutik: *Tolosa, Euskal Herriko irriburu. Euskara eta umorea historian zehar.* Umorea eta Tolosa uztartuko ditu, historian zeharreko pasadizoak kontatuz. Idazki ofizialak eta dokumentuak ere baliatuko ditu.

### MAIATZAK 21, ASTEARTEA

■ **19:00.** Karlos Linazasorok poesia emanaldia eskainiko du liburutegian, eta bertaratuei bere liburuak oparituko dizkie.

■ **20:30.** Tolosako Udal Txistulari Bandaren kontzertua, eta urteurrenoko disko aurkezpena, Topic zentroko aretoan. Txistulari bandak iaz bete zuen 40. urteurrenaren harira, diskoa grabatu dute Tolosako Musika

Bandaren, nahiz Eduardo Mokoroa musika eskolako akordeo orkestraren eta abesbatzaren laguntzaz.

### MAIATZAK 22, ASTEAZKENA

■ **19:00.** *Familia eta nerabeen kontsumoak* alkoholak sortuzko prebentzio saioa, kultur etxeko areto nagusian, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean. Kilometroak 2013 lanketa berezia egiten ari da Agipad eta udaleko gazteria sailarekin batera, eta Kilometroak jaiean alkoholak sortuzko dituen arazoak direla eta, urte osoko egitasmo baten lehen jardura izango da hitzaldia. Besteak beste, gurasoei zuzenduriko saioa izango da.

### MAIATZAK 23, OSTEGUNA

■ **19:15 eta 21:45.** Zine foruma: *Bost bideo kamera apurtuta* filmaren estreinaldia. Tolosako zine klubarekin elkarlanean, Tamer Birawik euskarazko aurkezpena egingo dio, euskaraz, Palestinako gatazkari buruzko aktualitate filmari. Euskarazko azpitu-luekin izango ditu pelikula.

■ **20:00-23:00.** Sardina jatea Zerkausion. Festa herrikoia antolatzeke helburuz, patrika guztiarentzat erakargarri suertatzeko prezioak jartzen saiatu dira, eta sagardoa eta sardinez gain, babarrun zaporeko saltxitzak ere dastagai izango dira, hiru egu-

netan. Ostegunean, ikasle batzordeak antolatutako bideo lehiaketako lanak proiektatuko dituzte sardina janarekin batera.

### MAIATZAK 24, OSTIRALA

■ **20:00-23:00.** Sardina jatea egingo dute Zerkausion.

■ **21:30.** Txaranga kalejira izango da, Zerkausitik Sakramentinoetara.

■ **22:00.** *Bonberenea Txaranga eta lagunak* kontzertua, Laskorain Ikastolaren eta Bonberenearen eskutik. Sakramentinoetako patioan izango da, besteak beste, eraikin berria ikasle nahiz guraso ohiei erakusteko helburuz. Txaranga formatuaz harago, banda formatuan edo formatu sinfonikoan eskainiko dute emanaldia, honako kolaboratzaileekin: Aiora (Zea Mays), Aitor Gorosabel (Suta Gar), Francis (Doctor Deseo), Juantxo eta Jokin (Glaukoma), Natalia (Humus), eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

■ **Aurretik.** Ahora! bideo lehiaketako finalistei sariak banatuko dizkiete.

### MAIATZAK 25, LARUNBATA

#### AHORA! eguna

■ Goizetik hasita, *Argitxoren bila* jolasa izango da, Laskorain ikastolako lehen hezkuntzako ikasleei begira: Tolosako hainbat dendetan Argitxoak egongo dira ezkutaturik.

■ **12:00.** Trianguloan murala margotuko dute.

■ **12:00-13:30.** Tolosa Kantari eta Giroarte dultzaineroak Alde Zaharrean barrena kalejiran ibiliko dira.

■ **12:30.** Txapin Festako baltsen jaitsiera, Oriabaian. Kultur etxean eman beharko da.

■ **14:00.** Herri bazkaria Plaza Berrian. Belaunaldi desberdinetara zabaldu nahi izan dute, aurretik, bazkaria. Txartelak salgai Denak, Raku eta Meskal tabernetan, Ahora dendan eta Laskorain ikastolan.

■ **16:00.** Bertso musikatuak Harituzeko Haritz Mujika eta Unai Mendizabalen eskutik.

■ **16:30.** Ahora! mosaikoa Plaza Berrian.

■ **17:00.** Kamisetak banatuko dituzte, eta jolasak izango dira Plaza Berrian.

■ **18:00.** Kalejira Kalean txarangarekin.

■ **18:30.** Jolasak Euskal Herria plazan.

■ **20:00-23:00.** Sardina jatea.

■ **21:30.** Zesuma taldearen emanaldia Zerkausion.

### DATOZEN JARDUERAK

■ **Maiatzak 26, igandea.** Ibilaldia festara joateko deialdia.

■ **Maiatzak 28.** KMK 2013ko bideo-kliparen aurkeztuko dute.

■ **Ekainak 2.** Bedaioko Artubi elkartearekin elkarlanean, Tolosako muinorik garaienera, Artubira, lekukoa eramango dute mendi irteera eginez.

## Bi mendi irteera antolatu ditu Aizkardik

**M. Iraola** Amasa-Villabona

Bi mendi irteera antolatu ditu Aizkardi Mendi Elkartek. Maiatzaren 26an izango da lehena, eta Monçayo mendilerroa zeharkatuko dute. Mila metro pasatxoko altueran dagoen Agramontetik abiatuko dira, Monçayora (2.227 metro) igo aurretik. Ondoren, Alto del Corralejo (2.274 m.), Lobera (2.227 m.) eta beste hainbat gainetarik pasako dira Añonen (836 m.) amaitu aurretik. Ibilbidearen iraupena, sei ordu t'erdikoa da eta

23 kilometroko distantzia du. Izen ematea zabalik da jada, elkartearen bertan edo 649 717 182 telefono zenbakian. Hurrengo osteguna, hilaren 23a, izango da izen emateko azken eguna.

Ekainaren 29 eta 30ean berriz, Echoko bailarara joango dira autoz asteburu osoa bertan pasatze- ra. 30 euro ordaindu beharko dira, larunbateko afaria, lo egitea eta igandeko gosaria barne. Izen-emateko eguna, maiatzaren 16a, osteguna, izango da, 20:00etatik, 21:00etara Aizkardi elkartearen.

## Truke azoka izango da igandean Alkizan

**M. Iraola** Alkiza

Aiztondoko Denbora Bankuak antolatuta, eta *Ekarri behar ez duzuna eta eraman behar duzuna* lelopean, truke azoka izango da datorren igandean Alkizan, 10:30etatik 14:30etara bitarte. Orotariko produktua eta zerbitzuak trukatu ahal izango dira. Mahai bat jarri nahi izanez gero, *aiztondokodenbora-*

*bankua@gmail.com* helbidera idatzi edo 943 693 930 telefono zenbakira deitu beharko du.

Azokaz gain, ekintza gehiago izango dira: 11:00etatik 12:30era, pala, errusiera, areto-dantza, birziklapen eta barruari begira izeneko tailerrak; 12:30etan, Dirurik Gabe Elkartearen aurkezpen ekitaldia; eta 14:00etan, truke-bazkaria, bertaratutakoek eramandakoekin.

## Irudia > Amasa-Villabona



## MADDI OTEGI, TXAPELDUN

Pasa den asteburuan haur eta gaztetxoek mailako Euskadiko Soinu Zahar txapelketako finalak jokatu ziren Legazpin. Oinkari Dantza Taldeko kideak bertan izan ziren. Gaztetxoek mailarako talde billabonatarreko lau dantzari zeuden sailkatuak: Maider Etxeberria, Oihane Ayestaran eta Maddi Otegi billabonatarak, eta Nerea Irurzun zizurkildarra. Lau dantzariak lan bikaina egin zuten, batez ere Maddi Otegi, bera izan baitzen txapelketako garailea. Irudian, Finalako Oinkariko sei protagonistak: lau dantzariak eta beraien irakasle diren Lourdes Esnaola eta Iker Sanz. HITZA

## > Laburrak

### Dantza eta txistu ekimena izango da igandean

**ASTEASU** > Ebia Kultur Taldearen eskutik, dantza eta txistu ekimena ospatuko dute igandean Asteasun. Alde batetik, dantzazaleek, iparraldeko herrietan udaberriaren egiten den moduan, pikak eta jauziak dantzatuko dituzte plazan, eta bestetik, sortu berria den txistularien taldea kalez kale joango da igandeko pintxo-potea alaitzeko.

### Jesusen Bihotza Ikastolako DBH tituluak, eskuragai

**AMASA-VILLABONA** > 2011-2012 ikasturtean, Jesusen Bihotzan DBHa egin zutenek eskuragai dauzkate tituluak ikastolako idazkaritzan. Bertako ordutegia, 09:00etatik 13:30era; eta 15:00etatik 18:00etarakoa da.

### Webgunearen trafikoa hobetzeko ikastaroa

**TOLOSA** > Lehiberrik eta Enpresa Digitalak jardunaldi bat antolatu dute Tolosaldeko enpresa eta negozioentzat, euren webgune-taldea trafikoa hobetzeko. Ikastaroa datorren maiatzaren 16an izango da arratsaldean.

## Gutuna

### Gutxiago dutenei laguntzearen poza

Kirikiño Aisialdi Taldeko 21 gazte gara. Azken hiruhilabetetan tamalez hain modan dauden gaiak jorratu ditugu: pobrezia, berdintasuna, milurteko helburuak, giza eskubideak, eta abar luze bat. Gai hauek lantzean, gure lagun saharatarretaz oroitu gara; hauek laguntzeko beharra sentitu dugu. Horretarako *Saharako kanpaina* izena duen proiektua jarriko dugu abian datorren egun hauetan.

Ez da kanpaina hau egiten dugun lehen aldian, urteak daromatragu Saharako errefuxiatuentzat kamisetak eta eskole-

tarako materiala biltzen. Aurretan, azken urteetan bezala, laguntza gure ikastetxeetan eskatzeaz gain (Hirukide Gainberri, Jesuitinak eta Eskolapioak) Tolosa osoari eskatzea ere erabaki dugu.

Gehienok dakizuen ez-eta ez dakizuenentzat- Tolosa Saharako Bir Lehlu izeneko errefuxiatu kanpamendu batekin anaieraturik dago. Anaieraturik egoiteak, gure anai-arrebak balira bezala tratatu behar ditugula esan nahi du, lagundu egin behar ditugula, alegia. Beraiek ez baitute guk dugun zortea.

Egia da, gaur egungo egoera ez dela besteei laguntzen has- teko hoberena. Hala ere, denok

laguntzea nahi dugunez, denok lagundu ahal izango dugu. Laguntzea, etxean dituzuen kamisetak zaharrak ematea bezain erraza da. Zuetako askok izango duzue etxeko armairua garbiketa baten beharrez; beste laguntzea baino aitzakia hobea gorik ba ahal dago egiteko?

Eta zer esan etxean erabili gabe ditugun boligrafo, koaderno, guraize, arkat, margola... Bir Lehluarko umeen hezkuntza gure etxeko eskola-materialetan dago.

Beraz, tolosarrok (inguruko herriren batekoa bazara ere, gustura jasoko dugu zure laguntza) gogora zaitzete maiatzaren 18an, larunbatean, kamiseta

eta eskolarako materiala Triangulora eramateaz. Bertan izango gara zuen zain, 10:30etatik 13:30etara.

Ilusioz beteriko proiektu erakargarria da aurrean duguna eta zuen parte hartze aktiboa behar dugu. Eman diezaiozun Bir Lehluoko herriari ustekabe eder bat. Erakutsi diezaiozun gure seme, iloba, biloba, lehengusuei... gutxiago dutenei laguntzeak dakarren poza. Sinetsi dezagun mundu berri batean.

**■ Kirikiño Aisialdi Taldea.**

### Eskerrik asko!

Hutsunea Betez-eko Zuzendaritza Batzordeak, maiatzaren

4an, larunbatean, *Consuelito* laguntzeko egindako merkatu solidarioaren arakastaren ondorioz eskerrak eman nahi dizkie:

Lehenenik eta behin, jardueran parte hartu zuten bazkide guztiei; bestetik, Villabonako Udalarari beharrezkoak izan ziren azpiegiturak erabiltzen uzteagatik; bestalde, Adunako Aburuza eta Zabala sagardotegiei eman ziguten sagardoarengatik eta Amasa, Labe-zain eta Ogi-goxo okindegiei eman ziguten ogiagatik. Azkenik, Villabonako udaltzaingoiari bere laguntzagatik, eta era batera edo bestera parte hartu zuten persona guztiei. Eskerrik asko!

**■ Hutsunea Betez.**



**sarrerak**

HITZAK harpidedunentzat **5 sarrera pare** ditu



### Anje Duhalde Kontzertua

Maiatzak 17 · Ostirala  
20:30ean, Tolosako Leidorren



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



GAURKO ESKAINTZA

## Sasoiko produktuez gozatu Botarri jatetxean!


**BOTARRI JATETXEA**  
Oria kalea, 2  
Tolosa GIPUZKOA  
Tel.: 943-65 49 21  
tolosa@botarri.com  
www.botarri.com



Prezioa  
**17€**



www.mauka.eu



Orendainarren artean egindako galdetegian jasotako emaitzen arabera, haur parkea zen aurrera atera beharreko lehen proiektua. A. IMAZ

## Herritarrekin batera idatzi nahi du etorkizuna Orendaingo Udalak

Agenda 21 eraberritzeko herritarrek parte hartzen badute, «lanpostu bat sortuko litzateke»

Asier Imaz Orendain

Orendaingo herritarrek erronka baten aurrean jarri ditu udalak ondorengo galdera zabalduz: «Zer nolako Orendain gustatuko litzazuke hemendik aurrera?». Erantzunak herritarrengandik jaso nahi dituzte udal ordezkariak: «Udalak erabaki beharrean, herria zertan hobetu orendaindarrak erabakitzea nahi dugun», dio Gorka Egiak alkateak. Erronka, beraz, udalarena ere bada, parte hartzea bultzatu beharra daukan

neurrian: «Ziur gaude ideia asko eta onak daudela. Hau dela eta, Orendainen hasiko den Agenda 21aren eraberritze prozesuan parte hartzera gonbidatu ditugu herritarrek».

Gonbidapenak etxez etxe banatu dituzte, eta erantzuna ere tamaina berekoa izatea nahi dute, *Etxe bakoitzetik bana* kanpainak argi azaltzen duen bezala. Horretarako, lehenik eta behin, beharrezkoa izan da Agenda 21 zer den azaltzea. «Herrian egin nahi diren proiektuek osatzen dute Agenda 21. Ekintza plan antolatuta bat da; udalaren lanildoak denifitzen dituen dokumentua, azken finean», azaltzen du Egiak.

Aurreko legealdian, dokumentu horren %40 egin zuten. Gaur egun, %75era iritsi dira, eta urte amaieran %85era iristea espero

du Gorka Egiak. Zenbakiak eskuetan, egin beharreko ia guztia eginga dagoela ikusten du udalak, eta horregatik, ekintza plan berria idazten hasteko garaia iritsi dela dio Orendaingo alkateak.

Abenduan hasi ziren hausnartu eta honekin, eta Agenda 21aren inguruan, lanean hastea erabaki zuten. Lehenik eta behin, *Etxe bakoitzetik bana* jartzen zuen kartelak zabaldu zituzten herrian, beste informaziorik gehitu gabe, eta orendaindarrak jakinmina piztu asmoz. Ondoren, herri aldiak eskuetan zutela, udal ordezkariak etxez etxe ibili ziren, erronka herritarrei aurkeztu.

Jasotako arretarekin gustura agertu dira udal ordezkariak, eta orain erantzuna neurtzeko unea iritsi da. Etxez etxeko lanketa honetan, herriaren etorkizuna de-

nen artean osatzearen garrantziaz hitz egiteaz gain, herritarrek lantaldeetan parte hartzeko eskatu zitzaizkien.

Arrazoi gehigarri bezala, lehenaz gain, ondorengoak azaldu zituzten Egiak orendaindarrei: «Parte hartze prozesu hau martxan jartzen badugu, herriko gazte bati lanaldi erdiko lanpostua izateko aukera emango zaio. Horrez gain, Agenda 21 txukun izateko geroz eta garrantzi handiagoa dauka. Laguntzak ematerakoan,

adibidez, inoiz baino gehiago hartzen dute kontuan».

### Lantaldeak zertarako?

Orendaingo Udaletik Agenda 21 oso zabal dela azaldu dute. Horregatik, azpi ataletan banatu dute, hain juxtu, herritarrei zortzi lantaldeetan parte hartzeko eskatu diete: «Etxe bakoitzetik bat agertzea gustatuko litzazuke; edozein herritarrek, bere interes edo nahien arabera aukera dezake lantaldea». Ondoren, hiru batzar egingo ditu talde bakoitzak. Lehenengoan, Orendaingo diagnosis egingo dute, bigarrenengan, adituen iritzia edo praktikan dauden adibideak ikusiko dituzte, eta hirugarrenengan, ekintza proposamenak egingo dituzte. Laugarren saio bat ere aurreikusten da, baina hau, aurreko batzarretan egindako lanaren inguruko galdetegiari onarpena emateko izango litzateke.

Galdetegia izango da lantaldeetatik aterako den emaitza, eta herri guztian zabalduko dena. Modu honetan, «erabakiak herritar guztien artean» hartu nahi direla dio Gorka Egiak alkateak.

Teoria edo erronka hau hau praktikan ikusteko, orendaindarrak ez dute urrutira joan beharrik, herrian bertan, horren adibide garbiak baitaude: «Galdetegian jasotako emaitzen arabera, adibidez, parkea aurrera atera beharreko lehen proiektua zela ikusi genuen udalera sartutakoan», dio Egiak. Horrez gain, «herritarrek egindako proposamenei esker, herri bideak garbi mantentzen saiatu gara, Ibiur urtegrakorako bidea auzolanean bukatu genuen, udal liburutegia jarri da, spinningeko bizikletak hartu ditugu...», jarraitzen du alkateak.

### ↓ Lantaldeak

#### INGURUGIROA

■ **Hasierako proposamenak:** Energia kontsumo eraginkorrak; paisaia babestu; energia ornikuntzak hobetu; mugikortasuna; hondakinak...

#### EMPLEGUA

■ **Hasierako proposamenak:** Ekonomiaren sustapena; lehen sektorea; langabezia...

#### HEZKUNTZA

■ **Hasierako proposamenak:** Hezkuntza zerbitzuak; haur eskola; urmeen/gazteen hezkuntza; aisialdia...

#### LEHEN SEKTorea

■ **Hasierako proposamenak:** Nekazal lurrik babestu; lehen sektorea suspertu; baserriak eta artzainen bizi baldintzak hobetu; basoak; ustategien in-paktua...

#### HIRIGINTZA

■ **Hasierako proposamenak:** Etxegintza; ura eta arazketa; bide sareak eta irisgarritasuna hobetzea; energia hornikuntzak hobetu; paisaia babestu...

#### ZERBITZUAK

■ **Hasierako proposamenak:**

Oinarrizko zerbitzuak; osasun zerbitzuak; gizarte zerbitzuak; mugikortasunaren inguruko hausnarketa eta hobekuntzak; eraikin berriko lehen solairua...

#### KULTURA

■ **Hasierako proposamenak:** Aisialdia; ekintza kulturalak; herri giroa; parte hartzea bultzatu...

#### UDALA

■ **Hasierako proposamenak:** Arriskuaren analisia; udal kudeaketa; herria eta udalaren arteko komunikazioa; parte hartzea bultzatzea...

## Harpide egiteak saria du

Egin HITZaren harpidedun apirilaren 1etik

maiatzaren 31ra arte, eta jaso

**OPARI**

**Basoa banaketak**  
eskainitako 3 ardo botila



eta

Harpidedun guztien artean

**Areta Etxea nekazalturismoan**  
**bi pertsonentzako**  
**asteburu baterako**  
**egonaldia**  
**ZOKATUKO DUGU**



**Harremanetarako:**  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

**hitza** info



Asteasun iaz ere idiak desafioan ikusteko aukera egon zen, San Isidro Egunean. E. MAIZ

## Usadioak landuz ospatuko dute Baserritarren Eguna eskualdeko herrietan

Bazkari eta afariekin batera, trikitaliak, bertsolariak eta herri kirol probak antolatu dituzte gaurko

nez gozatzeko aukera egongo da han eta hemen. Apaizek ere gogotik egin beharko dute lan, herri gehienetan meza ematea tokatu ko baitzaie gaurkoan. Ondoren, mahaiaren inguruan elkartuko dira baserritarrak.

diak 1.200eko harria ibili beharko du. Plaza gehien egiten dituenak irabaziko du erronka.

Zizurkil Goian ikuskizuna pilotariak eta aizkolariek jarriko dute bazkal aurretik. Azken hauei dagokienez, punta-puntako herri kirolariak ikusteko aukera egongo da, besteak beste, Joseba Otaegi, Jon Irazu eta Unai Otaño izango baitira tartean. Pilotariei dagokienez, etorkizunean zeresana emateko gogoz dabilzan gazteak ariko dira lehian.

### Asier Imaz

San Isidro edo Baserritarren Eguna ospatuko dute gaur, eskualdeko hainbat herritan. Usadioak eguneratuz, hamaika ikuskizun-

### Herri kirolak

Asteasun erakustaldi ederra antolatu dute gaurko. Alde batetik, Joxe Barriolaren idi parearen ariko da 1.500 kiloko pisua mugitzen, eta bestetik, Itxaso Arrutiren zal-



Puntuak eta musean finalera bikote berberak iritsi ziren. HITZA

## Altzoko Elordi Elkartean, karta jokoan murgilduta

Joxe Amiano, Joxe Mari Agirre, Kike Rodriguez eta Haritz Artetxe izan dira txapelketetako irabazleak

kenean, bai musean eta baita puntuan ere, bikote berberak iritsi ziren finalera.

Puntuak bikote bat nagusitu zen, eta musean bestea, beraz, irabazle titulua guztien artean banatu zen. Joxe Amiano eta Joxe Mari Agirrek osatutako bikotea izan zen nagusi puntuak, eta Kike Rodriguez eta Haritz Artetxe musean.

### A. Imaz Altzo

Altzoko Elordi Elkartean karta joko txapelketa antolatu zuten larunbatean, urteroko ohiturari jarraituz. Alde batetik, musean ibili ziren herritarrak, eta bestetik, puntuak. Txapelketa hauetan, hamar bikotetik gora aritu ziren buru belarri kartei begira, eta az-

Karta txapelketen ondoren, egunari amaiera emateko, afari ederra prestatu zuten Altzoko Elordi Elkarteko kideek. Mahaia jarri orduko 35 lagun elkartu ziren eguneko giro herrikoiaz gozatzera.

### ↓ San Isidro Eguneko egitarauak

#### ABALTZISKETA

- 12:30. San Joan Deunaren elizan, meza.
- 13:30. Bazkaria Ermentañen.

#### ALKIZA

- 21:00. Alkizako Udalak antolatuta afaria egingo dute Ostatu jatetxean.

#### AMASA

- 10:30. Meza.
- Ondoren. Hamaiketako elkartean.
- 13:00. Larrañaga eta Goirisaletxe bertsolariak, eta Kupela taldea.
- 14:00. Bazkaria Iturri Goxo Jatetxean.
- 20:30. Lagun arteko afaria, elkartean.

#### AMEZKETA

- 12:00. Amezetako Udalak erretirodunei hamaiketako emango die Zazpitturri elkartean.

#### ASTEASU

- 11:00. Meza.

- 13:00. Erakustaldia probalekuan. Joxe Barriolaren idi parearen, Itxaso Arrutiaren zaldiaren aurka.
- 14:00. Bazkaria Sarasola sagardotegian, Julio Soto eta Jexux Mari Irazu bertsolariak.
- Ondoren. Trikitaliekin erromeria.

#### BALIARRAIN

- Hilaren 18an, larunbatean. Urteroko moduan afaria egingo dute, larunbatean, 21:00etan, Zartagi Jatetxean. Izena emateko eguna gaur amaituko da; udaletxeko 943 88 90 03 telefono zenbakira deitu behar da.

#### BERROBI

- 16:00. Toka txapelketa, bingoa eta merienda Solastoki elkartean.
- 20:30. Baserritarrekin Iriarte jatetxean afaria.

#### BERASTEGI

- 12:45. Prozesioa udaletxetik San Martin elizara, txistularien laguntzarekin.
- 13:00. Meza.
- 14:00. Bazkaria egingo dute

udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

- Ondoren. Trikitaliekin alaituko dute bazkalosteko giroa.

#### LEABURU-TXARAMA

- Eguerdian. Bazkaria Leaburu-ko Ostatu jatetxean.
- 17:30. Asiako liztorren inguruko hitzaldia, Julian Urkola Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko lehendakariaren eskutik. Leaburu-ko erabilera anitzeko gelan izango da hitzaldia.

#### IBARRA, IZASKUN

- 13:00. Izaskungo ermitan meza.

#### ZIZURKIL GOIA

- 11:00. Meza.
- 12:00. Pilota partidak frontoian: Peru Labaka-Jon Erasun zizurkildarrak Iker Espinal-Gaizka Iruretagoienaren aurka.
- Ondoren. Aizkolaria: Joseba Otaegi eta Oihan Larretxea Jon Irazu eta Unai Otañoen aurka, txanda librean.
- 14:00. Bazkaria egingo dute Plaza Etxeberrin, bertsolari eta trikitaliekin.

## → Laburrak

### Eduardo Mokoroan matrikula egiteko epeak

**TOLOSA** › 2013-2014 ikasturteko matrikula epea zabaldu du Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolak. Maiatzaren 13tik 24ra bitarte, bertako ikasleen txanda izango da, eta ekainaren 4tik 7ra, lehenengo aldiz instrumentua hartzen duten bertako ikasleena. Ekainaren 13tik aurrera, ikasle berriek izango dute matrikula egiteko aukera, plazak bete arte.

### Sortuk batzarra egingo du gaur, kultur etxean

**TOLOSA** › Sortuk greba orokorraren inguruko batzarra egingo du gaur, 19:30ean, Tolosako kultur etxean. Mundumob ekimenaren inguruan ere hitz egingo dute bileran. Herritarrei bertara azaltzeko deialdia egin diete Tolosako Sortutik.

### Sutarri dantza taldean izena emateko aukera

**ALEGIA** › Sutarri dantza taldeak datorren ikasturterako matrikula epea irekia du, sei urtetik gorako haurrentzat. Izena emateko kultur etxera joan behar da, ekainaren 13a baino lehen.

### Txosna batzordearen bilera, bihar, 20:00etan

**IBARRA** › Txosna batzordearen batzar berri bat egingo dute, Ibarra Kultur Festen harira. Ostegunean, 20:00etan, elkartuko dira kultur etxean. Eragile desberdinei dei egin diete batzordetik, batzarrera agertzeko eskatuz.

### Berdintasun planaren inguruan kafe tertulia

**ALBITZUR** › Saiaz Mankomunitateak eta Albizturko Udaleko Gizarte Zerbitzuek berdintasun planaren inguruko kafe tertulia antolatu dute bihar, hilaren 16an, 15:00etan udaletxean.



Iazko zaldi lasterketa. I.T.

## Izaskungo jaiak ospatuko dituzte larunbatetik igandera

Jende ugari erakartzen duen zaldi lasterketa, eta pintxo eta sagardo dastaketa izango dira lehenengo egunean

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Izaskun auzoko jaiak ospatuko dituzte larunbatean hasi eta astelehena bitarte. Ohiko ekitaldiak izango dira, eta urtero moduan, Izaskun bezalako ingurune paregabean jai giroa nagusituko da.

Larunbatean ikusmin eta harrrera handia izaten duen zaldi lasterketa egingo dute, eta ondoren, pintxo eta sagardo dastaketa izango da. Igandean, berriz, herri kirolak izango dira eguerdian. Unai Otaño eta Joxemari Olasagasti aizkolariak ariko dira, eta Joseba Esnaola eta Goenatxo harri jasotzaileak. Bazkaria izango da gero, Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin, eta arratsaldean gaztetxoek ederki pasako dute Gorriti eta bere animaliekin. Trikiti doinuek ere ez dute hutsik egingo.

Astelehenean, diana izango da Loatzo Musika Eskolako eskutik, eta mezaren ondoren hamaitaketa egingo dute. Ondoren, arratsaldean bertso saioa izango da, Peñagarikano eta Lizasorekin, eta Alurr dantza taldearen emanaldiaz ere gozatu ahalako da.



Eguzkitza zentroaren dinamizatzailea, Iriarte Tolosako alkatea eta Sagarazu Don Boscoko zuzendaria. I.T.

## Bi ziklo berri eskainiko ditu Paper Eskolak irailtik aurrera

Kimikagintza eta kimika industrialak izango dira, Tolosan; ate irekien jardunaldia egingo dute gaur

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Tolosako Paper Eskolan araututako bi ziklo berri eskainiko dituzte datorren ikasturtean, biak ere papergintzarekin eta kimikarekin lotuak. Bata, Erdi Mailako zikloa izango da, Kimikagintza, eta bestea goi-mailakoa, Kimika industrialak. Zikloak papergintza munduari lotutako eskualdeko nahiz Gipuzkoako enpresen beharrik asetzeko eta bertako ikasleak lehenbailehen lan merkatuan integratzeko pentsatuta daudela adierazi dute.

Pasa den urtean Don Boscok hartu zuen Tolosako Paper Eskolaren gidaritzan, «zentroa biziberritzeko» helburuarekin, eta bitarte horretan antolaketan aritu ostean, irailaren jarriko dituzte martxan bi zikloak.

Ikastetxearen eskaintza aurkezten izan dira Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Nicolas Sagarazu Don Boscoko zuzendaria eta Pa-

blo Eguzkitza zentroaren dinamizatzailea. Hainbat eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanari esker lortu dutela Paper Eskola biziberritzea gogoratu eta esker-tu dute. Horien artean daude, Tolosako Udala, Tolosaldea Garatzen, Paperaren Clusterra eta Adeg. Horrek gainera, pisua ematen diola egitasmoari nabarmendu dute, «sinergiak aprobetxatuz, proiektu komun bat garatu delako». Orain, zentroaren erroka nagusia, egungo beharretara egokitzea dela esan dute. Bestalde, Paper Eskolak eskainiko duen zikloetako bat, kimikagintzakoa, Gipuzkoan bakarria dela ere azpimarratu dute.

Tolosako Paper Eskola, eskualdeko beste Lanbide Heziketa Institutuen osagarri izango da, eta eskaintza «aberasten» lagundu du. Hain zuzen ere, Paper Eskolaren atzean dauden eragileek hasieratik «garbi» izan duten baldintzetako bat hori dela azaldu dute, «Paper Eskola gehitzera datorrela, laguntzera eta osatzera».

**Gaur, ate irekien jardunaldia**

Paper Eskolaren inguruko informazio gehiago lortu nahi duen orok gaur izango du horretarako aukera, 19:00etatik 21:00etara bi-

tardean. Ikastetxea erakusteara kin batera, eskaintza akademikoaren berri ere emango zaie bertaraten direnei. Baita, ziklo hauek dituzten lan irteerak zeintzuk diren azaldu eta honez gain, ikastetxeak zein zerbitzu eskaintzen dituen agertu, hala nola, ekintzailetasuna, orientazioa, praktikak egiteko aukera enpresetan eta lan-poltsa. Ondoren, sarbide proiektua eta instalazioak erakutsiko zaizkie bisitariei eta amaitezko lunch-a egingo dute.

**50 urte betetzear**

Tolosako Paper Eskola 1965. urtean sortu zen. Garai hartan, industria sektoreak teknologia berrietan prestatzeko beharra ikusi zuen, eta Tolosako eskualdea hautatu zen proiektua aurrera eramateko, papergintza herriak zuen tradizioarengatik. Duela urte batzuk, sektorearen gainbeherarekin batera, ikastetxea ere ahulduz joan zen, eta ondorioz, bi urtetan ez dute hezkuntza arautuko ziklorik eskaini. Orain, orde, badirudi duela hilabete batzuk Tolosako Udalak eta beste zenbait eragilek jarritako helburua bete egingo dela, hau da, 2014an, 50. urteurrena ikasleekin batera ospatzea.

## Bildurentzat bosgarren edukiontzia «ez dela aukera bat» dio PSE-EEK

«Ingurugiro espekulazio hutsa» eta «informazio falta» dagoela salatu du Ibarrako zinegotziak

**I. Terradillos** Ibarra

Aitor Gonzalez Ibarrako PSE-EEren zinegotziak adierazi duenez, Bilduk «hondakinen zirkulua kodratu nahi du parte hartze prozesu bat iragarri, baina ez bizilagunek zein bilketa sistema nahi duten erabakitze, ez azkenean inposatuko den atez atekoa zein modutakoa izatea nahi den erabakitze». Bere ustetan, bosgarren edukiontzia «ez da aukera bat» Bildurentzat.

Gonzalezek bestalde, «informazio falta» salatu du: «aurrekontuek 78.000 euro aurreikusten dituzte, baina atez ateko hondakin sistemaren ezarpenaren kostuak zeintzuk diren azaltzen duen dokumenturik ikusi gabe jarraitzen dugu, sistema berria jartzan denean, hondakin bilketaren tasa zenbat igokoa den ez dakigun bezala».


PSE-EEren zinegotziaren arabera, «Bildu hondakinen gerrarekin hasi aurretik, birziklatzea modu sendo eta jasagarrian goraka zihoan eta jendea kontzientzia hartzen ari zen, inolako derri-gortzerik gabe». Bere ustez, baina, «herriarren arteko kontsentsua desegin zutenetik, birziklatzeak prestigioa galdu du, eta zerbait irrealia izatera pasatu da, euren estatistika fantasiatsuei esker».

Atez ateko hondakinen bilketa sistemaren inguruan emandako datuak «ingurugiro espekulazio hutsa» direla esan du Gonzalezek: «Hori argi ikusiko da Garbitariaren burbuilak euren txintxilailu batean zulatzen direnean».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Ibarra



**TOURETTE-REN ALDEKO KILOMETROA**

Uzturpe ikastolak elkartasun kilometroa egin zuen, Ibarra. Tourette sindromea dutenak laguntzea izan zuten helburu atzo egin zuten ekimenarekin. Irakasleekin batera, ikasle txikienetatik hasi eta handienetara, Ibarra plaza eta San Ignazio artean prestatu zuten zirkuituari itzuliak eman

zizkioten. Parte hartzaileek kilometro bakoitzeko dirua emango zieten babesleak bilatu behar izan zituzten, eta jasotako dirua Afesta Euskadiko Tourette sindromea eta bestelako trastornoen familia elkarteari bideratuko diote. Giro polita sortu zen herriko plazaren bueltan.» I.TERRADILLOS

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Oneka Artola Balerdi (Alegia).**  
Gaur 10 urte! Zorionak eta ondo pasa familia guztiaren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**



**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

- **Alkiza.** Igandean, Truke Azoka egingo da, Alkizan. 10:30etik 14:30era izango da. Parte hartu nahi dutenek, izena eman behar harko dute azokan mahaia jarri ahal izateko. 943 69 39 30 telefono zenbakira deituz edo [aiztondokodenborabankua@gmail.com](mailto:aiztondokodenborabankua@gmail.com) helbidera idatziz.
- **Berrobi.** Berrobiko kultur astearen barruan, 16:00etan, Toka txapelketa, bingoa eta merienda Solastoki elkartearen.
- **Leitza.** *Aizkora apustuak eta txapelketak* hitzaldia izango da, Espeloin eta Gabriel Saralegiren eskutik, 19:00etan, liburategian.
- **Tolosa.** Jabekuntza Eskolaren barruan, Jabetze eskolak emakumeentzat. Zein jabetze motaz ari gara? hitzaldia eskainiko du Mertxe Fernandez Bogak. 19:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Tolosako Sortu alderdiak herri batzarra egingo du, 19:30ean, kultur etxean. Mundumoba ekimenaz eta M30eko greba orokorraz eta ariko dira.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak hilaren 19rako mendi irteer

ra antolatuko du. Txangoa Sarria-Baranbio izango da. Gorbea eta Odoriaga mendiak igoko dira. Autobusa San Frantziskotik 07:30ean aterako da. Iraupena 6 ordukoa da. Bazkideek 11 euro eta bazkide ez direnek 13 euro ordaindu behar harko dute. Izen ematea: 943 65 27 89 edo [alpinozturre@hotmail.com](mailto:alpinozturre@hotmail.com).

■ **Alkiza, Ibarra eta Orexa.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birziklapen bira* Alkizan, Ibarra eta Orexa izango da. Herriarrik birziklatzearen garrantziaz jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaiarekin lotura duten produktuak ere.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaro azua, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
  - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**berriak  
10 urte  
zatoz gurekin  
ospatzera**

**Maiatzak 17, Tolosa**

Kontzertua **Anje Duhalde**  
20:30ean • Leidor Aretoa